

## LANKIDETZAREN DIARIOA

---

1. eguna (2007ko Otsailak 27)

ZARAUTZ:

- Lankidetzari buruzko informazioa eman. Horretarako dokumentu bat egin dugu, lankidetzaren eta zertarako balio duen azaltzeko
- Taldeen antolaketa eta gaien esleipena
- Lehen diapositiba (aurkibidea) egiten hasi. Eredu bat proposatu zaie (internet-en argitaratuta dago eredu hori)

ZUMAIA:

- Gidoia irakurri eta eztabaidatu.
  - Gmail kontuak ireki eta argazkiak atera ditugu.
  - Gaiak banatu ditut taldeetan.
- 

2. eguna (2007ko Martxoak 01)

ZARAUTZ:

- Informazioa bilatu. Informazioa bilatzeko baliabide nagusiak:
  - Google
  - [www.eve.es](http://www.eve.es)
  - [www.zarautz.com/rafamunoa](http://www.zarautz.com/rafamunoa) (ikerketak - lankidetzaren)
- Zumaiako kideen berri eman (izenak, argazkirik ez oraindik)
- Zalantza planteatu dut taldean: Zer da legeak dioena helduak ez diren ikasleen argazkiak argitaratzeari buruz?
  - 3. eguna baino lehen, legeak (BOE) diona eskura daukagu. Nik oraindik ez dut irakurri.

ZUMAIA:

- Informazioa bilatzen eta lehenengo diapositiba egiten ibili ziren.
- 

3. eguna (2007ko Martxoak 06)

ZARAUZ:

- 6 taldeen Gmail kontuan sortu
- Informazioa bilatu

ZUMAIA:

- Informazioa bilatu eta diapositibak egin dituzte.
- 

4. eguna (2007ko Martxoak 08)

ZARAUZ:

- Informazioa bilatu. Taldeek lanaren erdia jadanik eginik dute

ZUMAIA:

- Diapositibak egiten jarraitu dute. Batezbeste 6 bat egin dituzte.
  - Beraien artean egindako diapositibak konpartitu dituzte, Gmail kontuaren bitartez konpartitutako dokumentuan irudia nola sartu ikasi eta gero (fitxategi grafiko gisa) .
- 

5. eguna (2007ko Martxoak 13)

ZARAUZ:

- Gmail kontuaren bitartez konpartitutako dokumentuan irudia nola sartu ikasi (fitxategi grafiko gisa)
- Diapositibak konpartitutako dokumentuan sartzen joan
- Informazioa bilatu

ZUMAIA:

- Informazioa bilatu, diapositibak egin eta konpartitu beraien artean.
-

6. eguna (2007ko Martxoak 15)

ZARAUZ:

- Konpartitzeko dokumentuetan Zumaiaiko ikasleak sartu dira kolaboratzaile gisa
- Informazioa bilatu
- Informazioa sartu kolaboratzeko dokumentuetan

ZUMAIA:

- Diapositibak egiten jarraitu dute. 8-9 diapositibak egin dituzte gutxi gora-behera.
  - Aurreikusitako 6 orduetan ez dute lana bukatu.
- 

7. eguna (2007 Martxoak 20)

ZARAUZ:

- Informazioa bilatu eta diapositibak sartu. Lana amaitzen ari dira.
- Falta dena hauxe da:
  - informazio grafikoari komentarioak sartu, besteek informazio horren testuingurua izan izan dezaten
  - beste lankideen lana ikusi eta komentatu
  - beste lankideek lana ikus dezatela eta komentarioak jaso

ZUMAIA:

- Informazioa bilatu eta diapositibak sartu.
  - Zarauztarrak kolaboratzaile bezala sartzen ibili dira.
  - Zarauztarren lanak ikusten ibili dira.
  - Zailtasunak:
    - Diapositiboari buruzko komentarioak non eta nola sartu.
- 

8. eguna (2007 Martxoak 21-22)

ZARAUZ:

- Zumaiaiko ikasleen lanak ikusi (pantailan eta paperean inprimatuta)

- Lanak alderatu

#### ZUMAIA:

- Arazoak izan ditugu internetekin. Ekaitza dela eta oso oso poliki zihoan eta oso lan gutxi egin izan dute.
  - Beraien lana eta Zarauztarrena ikusten eta konparatzen ibili dira. Azko kostatzen zaie bestena baloratzea edo kritikatzeta, behintzat idatziz. Ez dute inongo komentariarik egin idatziz. Ea Zarauztarrak animatzen dira, eta beraien eredu jarraituz hasten dira kolaborazio lana egiten.
  - Azken diapositibak egiten jarraitu dute talde batzuek.
- 

#### 9. eguna (2007 Martxoak 27)

#### ZARAUTZ:

- Beste ikastetxeko informazioa jasotzea eta konparatzea izan da helburua
- Informazio berria jaso ez den zenbait kasuetan, mezua bidali zaie Zumaiakoei lana nola doan galdetzeko, eta posible den neurrian informazio (diapositiba) gehiago bidaltzeko

#### ZUMAIA:

- Beste ikastetxeko informazioa jasotzea eta konparatzea izan da helburua
  - Arazoak izan dituzte talde batzuek. Informazioa aldatu nahian, konpartitzen ari diren dokumentua ezabatu dute azken momentuan. Beraiek power point-en gordeta dutenentz bihar sartuko dute berriz.
- 

#### 10. eguna (2007 Martxoak 28-29)

#### ZARAUTZ:

- Lanarekin jarraitu

#### ZUMAIA:

- Beti erabiltzen dugun gela ezin izan dugu erabili, eta horren ondorioz beraien lanak ( power-point ) ezin izan dituzte erabili.
  - Interneten bitartez beste ikastetxeko lanak eta beraien lanak ikusten, konparatzen, eta baloratzen ibili dira.
  - Oraidik ere bi taldeek ez dituzte beraien diapositiba guztiak kolaboratibo artxiboan sartu.
-

11. eguna (2007 Apirila 03)

ZARAUZ:

- Norberaren lanaren amaiera

ZUMAIA:

- Norberaren lanaren amaiera
-